

Liburutegia

PILAR IPARRAGIRRE

Euskal mitologiak.
Jentilak eta kristauak

Anuntxi Arana

ELKAR

120 orrialde / 12,35 euro

Sinkretismoaren
eragina gurean

Euskal mitologiaren eta kristau dogmen arteko sinkretismoa aztertu du Anuntxi Aranak *Euskal mitologiak. Jentilak eta kristauak* izeneko saioan. Paganismo irekiak eta kristautasun herrikoiak ahalbidetu dituzten gurutzatze anitzak ekarri ditu liburuko orrietara. Esate baterako, Anbotoko Anderea ordezkatu zuen Arantzazuko Ama Birjina; edota sekula bizi izan ez zen San Fermin, deabruzterik izan ez zuten sineste zahar baten ondorengo. Anuntxi Aranak dioenez, “saindu” hitzak, “anderea” edo “jauna”-k bezala, dibinitate izaera adierazten du, testuinguru kristauan zein paga-

noan, eta hala ditugu Andere Dona Maria eta Anbotoko Anderea, Jaun Done Joane eta Basajauna, Eguzki Saindua eta Bidarraiko Harpeko Saindua. ■

Haur literaturako
lehiaketa.
Iruñeko Udala

Batzuen artean

IRUÑEKO UDALA

80 orrialde

Iruñeko haur literaturako
lehiaketaren iazko irabazleak

Iruñeko Udalak plazaratu berri du urtero antolatu ohi duen euskarazko haur literatur lehiaketan joan den urtean saridun izan ziren lanen bilduma. Komiki itxura eman diote aurten liburuari, izan ere, lehiaketara ipuinak eta komikiak aurkezteko aukera izan zuten lehen eta bigarren hezkuntzako ikasleek. Euskal Herriko hiriburuan ikasten duten gaztetxoek istorioetan euren amets, desio eta kezkak daude islaturik. Guztiak ezin ditugu lerrootan aipatu, baina liburuan aurkituko ditu idazleak *Marraztoa etxean*, *Amona Maria*, *Hartzaren urtebetetzea*, *Ardoa ematen zuen behia*, *Arrainak diru bila*, *Gizakiak suntsipena* edo *Ile luzeak sortutako arazoa* bezalako kontakizunak, baita *Muturluze eltxoa*, *Errepertaria gartzelan* edo *Aitaren mapa* komikiak ere. ■

Donostiako
baserriak

Egunetik egunera gutxiago diren arren –auskalo zer gertatuko den monumentu preziatu izendatutako Munto baserriarekin ere– Donostiak baditu oraindik baserriak; hain zuzen ere horietaz eta Gipuzkoako hiriburuak dituen txokorik zaharrenetaz mintzo zaizkigu Josu Tellabide eta Asier Agirresarobe *101 bazter Donostiako* liburu ederrean. XXI. mendearen hasiera arte zutik irautea lortu duten baserrien irudiak eta historia jaso dituzte lan honetan: Munto bera, Lugarizko Unanue eta Zuatzu, Altzako Txipres eta Ubegi, Loiolako Parxillardegia, edo Zubietako Aliri eta Berridirenak, esaterako. Eta, oroimenarekin besterik ez bada ere, gogora ekarri dituzte Parte Zaharrean aurki ditzakegun Puiuelo eta Lorenzo kaleak, Plaza Berria edo Iturriaurrea bezalakoak. ■

101 bazter
DonostiakoJosu Tellabide,
Asier Agirresarobe

ALBERDANIA

280 orrialde

19 euro

Erregaliz taldea
ikertzaile

Atzean geratu dira Erregaliz taldeak Italian igarotako opor egunak –*Dotte nerbioak dantzatzen ditu* liburuan jasota daude–, baina oraindik gogoan dituzte, bereziki udazkeneko egun hotz eta euritsuetan. Horietako batean bururatu zaio Fannyri ikertzaile-agentzia bat sortzea Maya, Leo eta Dotte lagun minekin. Eta burutapen horren ondorengoak azaltzen dira *Fannyren ikertzaile-agentzia* liburuan. Istorioaz gainera, ikertzaile-agentzia bat antolatzeke gogoan duen irakurleari beharrezko dituen xehetasunen berri emango zaio: hatz-markak finkatzeko nahitaezko izango omen ditu pintzela, hautsak, tinta-tanpoia, gomazko eskularruak eta metroa; eta gertakaria izan den lekuan egin beharreko galderak ere adierazten zaizkio. Eta ohar bat: ez saiatzeko inoiz ikertzaile gisa polizia ordezkatzeko. ■

Fannyren
ikertzaile-
agentzia

Patricia Schröder

IBAIZABAL

110 orrialde

9 euro



Zulo bat uretan

Iñigo Aranbarri

SUSA

198 orrialde

14,50 euro

Oroimenaren eta jarraitu beharraren artean

Itoizko urtegia betetzera doaz eta inguruko herriak urperatu behar dituzte, baita hilerriak ere. Kanposantu horietako batera bidali dituzte Maite Andueza antropologo forentsea eta Oscar Iriart etorkin argentinarra, hango gorpuzkinak berreskuratzeko, urak betirako irentsi baino lehen. Tartean sartuko da ordea “historiaren zaborteziak irentsi aurretik” istorioak biltzea maite duen kazetaria. Eta haren bidez jakingo dute 1936ko Gerraren ondorioz hildako emakume baten gorpua egon daitekeela betirako urak irentsi dezakeen gorpuzkinen artean. Gorpu horren bila ari diren bitartean,

argentinarrak bere herrialdeko gorabeherak gogoratzen ditu, baita euskaldunek eurenak ere. ■

Toribio Alzaga antzerki lehiaketako iazko sariduna

Pablo Barrioren *Kontrako bidean* antzezlanak izan zen iazko Toribio Alzaga antzerki lehiaketako irabazlea. Zahar etxe batera bere borondatez joandako senar-emazteen egoera kontatzen du liburuak. Senarrak oso argi du burua, baina gorpuzkinak ez dio erantzuten. Emazteari, berriz, burua ari zaio aldrebesten. Semeak eta bilobak asko maite dituzte. Etxera eraman nahiko lukete aita, ama egoitzan utzirik. Aita ez dator bat horrekin. Bilobak, bere aldetik, aitonaren laguntza nahi du gaztetxe-ko egitasmo baterako. ■

Kontrako bidean

Pablo Barrio

EUSKALTAINDIA, BBK

80 orrialde



MARIA GARIKANO

«Irrealtasunak duen errealtasunaren aldeko manifestu bat da»

Nola sortu zen nobela magiko hau?

Mila zortziehun eta laurogeita bateko goiz euri-tsu batean, R. L. Stevensonek uharte baten mapa marrazteari ekin zion topografo baten arretaz. Laster erabaki zuen uhartearen xehetasunak, muino zein leize, kala zein ainguraleku edo zingira eta toki bakoitzaren izena. Baita uhartearen izena ere: *Altzor Uhartea*. Irudizko mapa hark erabaki zuen, neurri handi batean, uhartean gertatuko zen istorioa. Idazleak berak esanda dakigu mapa hartan ikusi zituela estreinako aldiz piraten aurpegi likitsak eta altzor bilatzaileen joan-etorriak, orain mozkortuta, orain borrokan.

Zein testuingurutan idatzi zuen egileak nobela?

Garai horretan, naturalismoa zen jaun eta jabe Europako literaturan. Hila zen erromantizismoa, eta abentura nobelen garaia berarekin. Baina Stevensonek, lan honekin, bizkarra erakusten die nobelari dokumentu baten objetibotasuna eman nahi diotenei. Marcel Schowbek liluraturik irakurri zuen *Altzor Uhartea*, bere iritziz abentura nobelen artean ederrena; are gehiago, liburu hura manifestu bat ere badela irudituko zaio, irrealtasunak duen errealtasunaren aldeko manifestu literario bat, hain justu, literaturari bide berriak zabaltzen dizkiona. Eta ez zebilen oker Marcel Schowb liburuaren alderdi teoriko hori aipatzean.

Zergatik?

Altzor Uhartea, Stevensonen gainerako saiakera, ipuin, poema eta abar guztiak bezala, gogoeta sakon baten ondorio delako. Eta nobela honek, bere modura, giza esperientziaren berri ematen du.

egileari galdezka

Pirata baten kutxan aurkitutako uharteko mapa

Ametsak eta desirak ez al dira errealtatearen atal? Izan al da sekula urre bila ibili ez den umerik? Edo pirata, militar buruzagi ala bide-lapur izan ez denik? Honelako gogotak zituen buruan R. L. Stevensonek *Altzor Uhartea* abenturazko nobela idazterako orduan. Jim Hawkins mutikoa du kontalari eta heroia nagusi eleberriak, eta haren begietatik ikusiko ditu irakurleak altzor bila espedizioan parte hartzen duten guztiak ezaugarriak. Hel-duen mundura egindako lehen bidaia da hura gaztearentzat, eta maiz nahastuta geratzen da ezagutzea egokitu zaion jendearen aurrean, ez baita gai haien artean zintzo-zintzorik, ez gaizto-gaiztorik aurkitzeko. Batere gustuko ez zuen pirata baten marinela-kutxan aurkitu zuen Flint itsaslapur beldur-garriaren altzorra gordetzen zuen uhartearen



Altzor uhartea

R. L. Stevenson

ELKAR

316 orrialde

19,45 euro

mapa. Konfiantzako pertsonari bere aurkikuntzaren berri eman orduko, harantz abiatzea erabaki zuen espedizio oso batek, mutikoa tartean zela, *Hispaniola* baleontzian. Eskifaian, orde, isilka sartu zitzaizkien altzorren mapa bereganatzeko grinaz zebiltzan itsaslapur ugari. Baina horretaz berandu ohartu ziren, enbaten erasoaren itsasoan jasaten ari zirenean. ■